

HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO TXOSTENA, “KIDEAK” PROGRAMA ESPERIMENTALA
ONESTEN DUEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUAREN GAINEKOA, NAFARROAN FAMILIA
LAGUNTZARIK EZ DUTEN MIGRATZAILE GAZTEEI ARRETA OSOA EMATEKO

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatu zen, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jaso nahi baitzen zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonak eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Aldez aurretiko kontsultan, herritarrek parte hartzeko aukera izan zuten; iradokizunak aurkeztu zituzten 2020ko azaroaren 3tik 23ra bitartean. Epe hori iraganik Ilundain Haritz-Berri Fundazioa entitateak proposamen bat aurkeztu zuen; halaxe ageri da aldez aurreko kontsulta publikoaren amaierako txostenean, zeina espedienteari erantsi baitzaio.

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren urriaren 28ko 32/2020 Foru Aginduaren bidez hasiera eman zitzaion foru agindu bat prestatzeko prozedurari, “Kideak” programa esperimentalaren onesteko, Nafarroan familia laguntzarik ez duten migratzaile gazteek arreta osoa jaso dezaten. Horretarako, Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua izendatu zen.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 14ko 11/2019 Foru Legearen 133.2 artikuluan eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru aginduaren proiektua jendaurrean egon da 2020ko azaroaren 26tik abenduaren 22ra arte.

Epe horretan Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABI) ekarpenak egin ditu. Ekarpen horiek foru aginduaren proiektuaren testuari egin zaizkion gomendio zein ekarpenak dira, eta LGBTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordetzak, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalak eta Genero Zeharkakotasunaren Atalak egin dituzte.

Gomendio orokorretan alderdi hauek aipatzen dira:

- Eskuragarri dagoen informazioa hobetzea, batez ere sexuaren arabera bereizitako datuei dagokienez, eta genero-ikuspegia prozesu osoan txertatzea; izan ere, generoak baldintzatzen ditu migratzeko arrazoiak, migratzailearen profilak, migratzaileek migratzeko erabiltzen dituzten sare sozialak, integrazio-esperientziak eta helmugako lan-aukerak, bai eta jatorrizko herrialdearekiko harremanak ere.
- Langileak generoan eta kulturartekotasunean trebatzea.
- Migrazio-prozesuen analisia genero-ikuspegitik planteatzea jatorritik (zergatik migratzen duten, itxaropenak, helmugako herrialdean dituzten ondorioak, etab.).
- Emakumeek jasaten duten diskriminazio anizkoitzeko egoera kontuan hartzea, sexuaren eta beste aldagai batzuen arteko interseksionalitateaz jabetuta, hala nola adina, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, sexu-identitatea eta abar, diskriminaziorako faktore gehigarriak baitira.
- Arretarako gizarte zerbitzuak bultzatu eta indartzea, betiere kontuan hartuta neska migratzaileek izan dezaketen kalteberatasun-egoera berezia.
- Hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea

Foru aginduaren testuari egindako ekarpenei dagokienez, proposatu dute justifikazioan genero-ikuspegia txertatzea emakumeen migrazio-arrazoieta eta migrazio-proiektutik espero dituzten emaitzetan; izan ere, jatorrizko gizarteetan nahiz xede-gizarteetan genero-rolen artean dauden desberdintasunek eragina dute migrazio-mugimenduetan. Adierazi dute generoak eragina duela bidaia egitera bultzatzen duten arrazoieta, erabakiak hartzeko erantzukizunetan, ibilbideetan, eta lan-merkatuan sartzeko eta zerbitzuak eta oinarrizko baliabideak lortzeko aukeretan.

Era berean, adierazi dute migratzeko motibazioen artean sexu-esplotaziotik eta/edo salerosketa-mafietatik ihes egitea eta ezkontza behartuak ere sartu behar direla, jatorrizko lekuetan askatasunez bizi ezin dituztelako beren sexu-orientazioa, genero-adierazpena eta sexu-eta genero-identitatea.

Orobat, arreta berezia eskaini behar zaie neska eta mutil gazteak iristeko bideei, kasu askotan salerosketaren, trafikoaren eta prostituzio-sareen biktimak baitira.

Era berean, adierazi dute kolektibo horren kalteberatasun sozial, instituzional eta juridikoko egoeraz hitz egiten denean nabarmentzen dela, duen garrantziagatik, genero-aldagaiak adingabe etorkinen kalteberatasun soziala areagotu dezakeela emakume izateagatik, eta zailtasun handiagoak ekar ditzakeela hainbat eremutan, hala nola enpleguan, prestakuntzan, etxebizitzan edo beste baliabide batzuk eskuratzean.

Helburu orokorrean genero-ikuspegia txertatzea ere proposatu dute, eta beste genero-desberdintasunei aurre egiteko: batetik, emakumeen ahalduntzea bultzatzea; eta, bestetik, berdintasuneko maskulinitateetan sartzea eta gaitzea, eta, bestetik, berdintasuneko maskulinitateetan sartzea eta gaitzea, genero-desberdintasunei aurre egiteko.

Programaren funtsezko alderdietan, proposatu dute genero-ikuspegia txertatzea egiten diren laguntza-ibilbide pertsonalizatuen diseinuan.

Programan sartzeari eta irauteari dagokionez, jada adierazitako irizpideei sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea gehitzea proposatu dute. Programak ezartzen du emakumeek lehenetsuna izanen dutela sartzekoan, eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak bereziki kontuan hartzea proposatzen du.

Egindako ekarpen guztiak egokiak eta bidezkoak dira programaren ikuspegiarekin eta, beraz, Nafarroan familiaren laguntzarik gabeko gazte migratzaileentzako “Kideak” programa esperimentala ezartzea onartzen duen foru aginduarekin.

Horrela, ekarpenak foru aginduaren testuari erantsi zaizkio.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 15ean.

Sinadura jatorrizkoan dago.

Karibu-Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzua

Virginia Eraso Barrio